

Panga kontsumitzearen arriskuen ebaluazioa

ACSAREN Elikagaien Segurtasunerako Aholku Batzorde Zientifikoak pangaren kontsumoari buruzko iritzia eman du, arrain horretan ager daitezkeen kutsatzaile kimikoak direla eta, hala nola nitrofuranoak, merkurioa eta artsenikoa.

Batzordeak ondorioztatu du panga kontsumitzeak ez duela gizakion osasuna arriskuan jartzen; beraz, segurua da dieta orekatu batean panga kontsumitzea.

Osaera nutrizionala

Panga ur gezako arrain zuria da, akuikultura-tekniken bidez ekoitzia. Arrain hori batez ere Asia hegoaldean ekoizten da, eta Espainian merkaturatzen den panga gehiena Vietnamentik dator.

Nutrizioaren ikuspuntutik, pangaren osaera beste arrain zuri batzuenaren antzekoa da. Gantz, kolesterol eta Omega 3 gantz-azido gutxi dauka, eta beste arrain zuri batzuk (legatza, amuarraina, oilarra...) baino proteina zertxobait gutxiago dauka.

Kutsatzaile kimikoak

Nitrofuranoak

2015 eta 2016 artean, RASFFek 12 ohartarazpen egin zituen Asiatik zetorren pangan erdikarbazidaren presentzia hauteman zela eta. Erdikarbazida nitrofuranoaren metabolito bat da, eta haren erabilera debekatuta dago Europar Batasunean; ondorioz, ez dago horrentzako Hondakinen Gehieneko Mugarik.

ACSak gerta daitekeen kasurik larriena aztertu du, eta erdikarbazidaren balio altuarekin (5µg/kg) kontaktuan egoteak dituen ondorioak ebaluatu ditu; hala, adierazi du **ez dagoela gizakion osasunerako arriskurik, zenbatetsitako balioak EFSAK ezarritako maila segurua baino askoz ere baxuagoak direlako.**

Merkurioa

ACSak 18 panga-laginetako merkurio-edukia aztertu du; emaitzek erakusten dute balioak detekzio-mailaren azpitik zeudela. Metilmerkurioa, merkurio motarik toxikoenak, merkurio osoaren % 75 zenez, 0,0375 mg/kg-ko balioa zenbatetsi da.

Gomendioen arabera astean 3 anoa arrain kontsumitu behar direla kontuan hartuta, balio horiekin zenbat merkurio kontsumitzen den aztertu da, eta ondorioztatu da **horrek ez duela gizakion osasuna arriskuan jartzen**; izan ere, nitrofuranoekin gertatzen den bezala, **zenbatetsitako balioak EFSAK ezarritako maila seguruak baino baxuagoak dira.**

Artsenikoa

Azken urteotan, RASFFek ez du ohartarazpenik egin EBko pangan artsenikoa egoteari dagokionez. Ez dago artseniko-kantitaterako legeko mugarik arrinetan.

Hala ere, Asiatik datozen arrainek duten artsenikoari buruzko azterketak egin dira, bertako uretan metal hori aurki baitaiteke. Azterketa horietan detektatutako gehieneko balioa kasurik okerren gisa hartuta (0,077 mg/kg), eta kontuan hartuta artseniko osoaren % 10 forma inorganikoan dagoela (hori da formarik arriskutsuena), esposizioa zenbatetsi da, astean 3 panga anoa kontsumitzen direla oinarri hartuta. Emaitzek erakusten duten balioa EFSAK ezarritako maila segurua baino baxuagoa da; ondorioz, **horrek ere ez du gizakion osasuna arriskuan jartzen.**